

BIDELEK SAREAK, A.I.E.

Sozietatearen izena

Bidelek Sareak, A.I.E.

IFK

V95662318

Izaera

Interes ekonomikoko taldea.

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

Sozietatea 2011ko irailaren 30ean eratu zen. Energiaren Euskal Erakundearen parte-hartzea [Energiaren Euskal Erakundeari sare elektriko adimendunak ezartzeko Interes Ekonomikoko Elkarte berrian parte hartzeko baimena ematen dion uztailaren 19ko 168/2011 DEKRETUAREN](#) bidez onartu zen.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna.

EJSN

7490 Beste eremu batzuetatik kanpo dauden beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk

Sozietatearen helburua

Sozietatearen helburua honako jardueri dagokie:

- Euskal Autonomia Erkidegoan, sistemen eta osagaien teknologiarri eta integrazioari dagokienez, eskakizun-maila handiko banaketa elektriko adimendunen sare-azpiegituretan inbertitzea, inbertsio horiek nazioarteko erreferentzia izan daitezen eta inguruneko teknologia- zein industria-garapenean trakzio-eragina gauzatu dezaten.
- Garatutako teknologiak balioztatzeko ezarritako azpiegituren eta proiektuen jarraipena egitea, bai eta lortutako etekinak kuantifikatzea ere. Hori guztia sare elektriko adimendunen garapenak ekartzen dituen onura nagusiak lortzera zuzenduta: zerbitzuaren kalitatearen hobekuntza; bezeroei emandako informazioaren hobekuntza; banatutako generazio elektriko handiagoa integratzeko sare elektrikoaren gaitasunaren hobekuntza; ibilgailu elektriko hornikuntza bermatzeko gai den sare elektrikoaren garapena ahalbidetzea; energiaren aurreztearen eta eraginkortasunaren sustapena, eskakizunaren kudeaketan oinarrituta; sareko galeren murrizpena; eskakizun elektrikoaren kurbaren berdinketa, etab.
- Sozietatearen helburuarekin zerikusia duten mota guztietako ikerketak, proiektuak eta lanak egitea.

Sailkapena kontabilitate nazionalean


Sozietate ez-finantzarioak.

Kapital soziala

51.967.000 €

Kapital sozialaren osaera

Iberdrola Distribución Eléctrica, S.A.U.	% 54,00
Energiaren Euskal Erakundea (EEE)	% 46,00



2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	55.656.243 €
Ondare garbia	50.004.068 €
Negozio-kopuruen zenbateko garbia	38.381 €
Batez besteko langile-kopurua	0

Sozietatearen helbidea

San Adrian Hiribidea, 48 - 48003 Bilbo (Bizkaia)

Webgunea

www.bidelek.com